

Turismoa, babofobia eta errepublika



Jose Ignazio Ansorena
TXISTULARIA

Udako gaia izan da. Auzotarren purrustade-kin batera, Ernai-ko neska-mutilek –interés politikoak tartean jakina– turismo ereduaren aurka kanpaina abiatu eta, arrapaladan, artikulu, elkarrizketa, adierazpen uholdea gertatu zen: *Ama maite turismoa, egiguzu lagun* kantatu zuten aho batez gure agintariak.

Masa turismoak –horretaz ari baikara noski–, ordea, adituen ikuspuntutik, ez du dena bere alde. Epe laburrean diru irabazi handiak uzten omen ditu poltsa pribatuetan. Eta luzera, diru publikoari oso garesti gertatzen zaio, sortzen dituen kalte ekologiko eta ekosozialengatik.

Hortxe dute banpiro diruzaleek xurgatze tentazio bizia, zeina asetzeko arau guztien azpitik eta errespetu guztien gainetik pasatzeko prest izaten diren. Herritarren artean eraikitako elkarbizitza hondatu behar bada ere. Gure erakundeek, sarri erakutsi dutenez, ez dute ahalmenik horiei aurre egiteko eta, ohi duten epelkeriarengatik, ezta gogo handirik ere.

* * *

Turismoaren aldeko kanpaina sutsuan tankera askotako memelokeriak irakurri ahal izan dira. Harkaitz Millan, *Basquetour*-reko zuzendariak idatzi zuen ederrena: *Turismofobia es Xenofobia*. Esaldia Bartzelonako Jaume Colboni zinegotzi sozialistari kendu zion eta Rafael Hernando PPko

bozeramaileak ere bereganatu zuen. Noski, kexu daudenak deskalkifikatzeko balio du, arazoaren muina eta politikarien erantzukizuna ukitu eta aipatu gabe. Donald Trump turismo negozio askoren jabe xenofoboak ere sinatuko luke.

Turismoa gripea bezalakoa da. Ez dago ihes egiterik, giroan da. Txertorik ez baduzu hartu eta gripeak harrapatu bazaitu, badakizu: atsedena, paracetamola, ohea, likido asko... Bestela oso larri bihur daiteke. *Gripe espainolak*, orain ehun urte, 20 milioitik gora pertsona hil zituen munduan.

Gure turismoan horixe gertatu da: ez txertorik ezta zainketa paliatiborik ere. Eta herritarrek, kokoteraino eginda, builaka hasi direnean, goi mandatariek mezu hotsandikoez erantzun digute zer ari garen ez dutelako ulertu. Mantoago esanda: ez ga-ra ba-bo-ak, ez du-gu tu-ris-mo fo-bia-rik. Baina baboak garela sinetsarazi nahi diguten baboei *babofobia* diegu.

* * *

Kataluniaren independentziaren kontua larri oso zaie batzuei. Larriagoa Errepublika izatea. Monarkiaren aterkia amarru askoren estalgarria baita. Niretzat plazerik ederrena Feliperen aurpegia ikustea izan da. Ezin disimulatu: *“España es una unidad de destino en lo universal”*. Baboak, *Go home!* ■

Egunkariarena



Edu Zelaieta
IDAZLEA

Buzoiaren ahoak xerratua du egunkaria, gure harridurarako. Urteak dira *Berría* etxe-ko postontzian jasotzen dugula, eta gaur, lehenbiziko aldiz, paperezko pieza bakarra hartu beharrean bi puska hartu ditugu. Testuinguru horretantxe etorri da semearen galdera xaloa, ezustean: “Guri bakarrik gertatu zaigu edo gainerako bizilagunek ere honela jaso dute egunkaria?”. Pedagogia egiteko aukera edota beharra suertatu zait orduan: “Guk egunkaria jasotzeak ez du esan nahi eraikinean bizi diren beste pertsonak ere jasotzen dutenik”. Mutikoaren harridura *in crescendo* doa, aitaren azalpenak aditu ahala. Nonbait

ere, oraintxe ari da ikasten egunkaria geuk bakarrik hartzen dugula atari osoan, eta horretarako ordaindu egiten dugula gainera!

Helduon irrimurria eragiten ahal duen pasarte da beharbada. Nolanahi ere, nago *nagusio*k ez dugula hain ezberdin jokatzeko zentzua; izan ere, antzekoa izaten ahal da gudan aktibatzen den mekanismoa: geure errealitatearen arabera interpretatzea besteena.

Gure buzoia ezberdina dela ikasten hasia da semea. Eta segur aski, nahiz eta hala ez adierazi, guraso erromantikoak dituela: postontziak xerratzen ahal duen papera irakurtzen, eta euskaraz! ■